



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko azaroaren 18a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, toki ogasunek toki ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa aldatzen duena, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan enpresa txiki eta ertainei BEZA ordaintzeari buruzko araudia. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Trafiko-istripuetako Biktimak gogoan izateko Nazioarteko Eguna ospatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Ubarmin klinikako baliabideak gutxiegi erabiltzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (11. or.).

—Galdera, Lizarragako tunelaren ondoko kareharrien ustiapenari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (11. or.).

—Galdera, Ondasun guztien inbentarioaren gabeziak zuzentzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (12. or.).

- Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriaren negozio-bolumenaren gaineko aurreikuspeni buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (13. or.).
- Galdera, “Euskarari buruzko programak gizarte hedabideetan” izeneko kontusaila desagertzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (14. or.).
- Galdera, Ilundaingo adingabeen zentroa irekitzeko plangintzari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (14. or.).
- Galdera, euskaltegi publikoetako ikasle-matrikulazioari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (15. or.).
- Galdera, Josefina Arregui zentroko ohe bakoitzaren kostuari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (15. or.).
- Galdera, jakiteko noiz deituko den Transferentzien Batzarraren bilkura, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Arbizuko ikastolan “Euskal Herriaren” eta “Palestinaren” arteko adiskidetze-egun bat ospatzeari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (16. or.).
- Galdera, Caparrosoko granja baten ingurumen baimen integratuaren gaineko epaiaren eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (17. or.).
- Galdera, 1512-2012 mendeurrena ospatzeko programari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (18. or.).
- Galdera, Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoaren 8. eta 9. artikulua betetzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, toki ogasunek toki ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa aldatzen duena, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2011ko azaroaren 7an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentura igorri du toki ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa aldatzen duen Foru Lege proiektua, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Toki ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa aldatzen duena, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENEA

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adina baliabide izan beharko dituzte legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, nagusiki, beren tributuo propioak izanez eta Estatuarenetan nahiz autonomia erkidegoenetan parte hartuz bilduko dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 259. eta 260. artikuluek Konstituzioaren testuak diotenaren antzerakoa diote, hau da, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaiela (259. art.) eta toki ogasunek finantzabide izanen dituztela beraiek jasotzen dituen tributuoak eta Foru Komunitateko eta Estatu-ko tributuetako partaidetzak (260. art.).

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 2. artikulua ere hizpide ditu finantza arloko autonomiari eta nahikotasunari buruzko printzipio konstituzionalak, zeinak beharrezkoak baitira toki entitateek balia ahal dituzten legeak esleitzen dizkieten eskumenak eta eginkizunak.

Legearen agindu horiek betetzearren, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legea onetsi zen, hau da, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezarri zituena 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako.

Orobat, eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 61. artikuluan ezarritakoa garatuz, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea onetsi zen, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzkoa; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuaren eta toki

entitateen arteko lankidetzak ekonomikorako tresna gisa, udalen nahitaezko zerbitzuen estaldura bermatzea baitu funtsezko helburu.

Alabaina, ez Konstituzioak ez 6/1990 Foru Legeak ez dute ezartzen nahitaez errespetatu beharreko zenbateko zehatzik, ezta tributuetako partaidetzaren ehunekorik ere; legeok aipatzen dutena da, aldiz, finantzaketa-sistema bat, diru-sarreraren gorabeheren menpe egon daitekeena eta ezin dena gastua murrizteko neurrietatik kanpo gelditu, betiere administrazio publikoen arteko elkartasunaren ikuspegitik.

Segurua eta ukaezina da Nafarroako Ogasunak nabarmen gutxitu dituela diru-sarrerak mendebaleko ekonomietan eta, hortaz, Foru Komunitatean, eragina duen krisiaren ondorioz.

Bestetik, aurrekontuaren egonkortasunari buruzko araudia, abenduaren 28ko 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuak jasotakoa, Foru Komunitatean aplikatzekoa da, Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren ondorioz.

25/2003 Legeak Hitzarmen Ekonomikoa aldatu zuen, eta aurrekontuaren egonkortasun arloko lankidetzak eta koordinaziorako konpromisoak prestatzeko eta erabakiak hartzeko eskumena eman zion Koordinazio Batzordeari.

Esparru horretan sartu behar da Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen arteko 2010eko abenduaren 9ko Erabakia, defizitaren helburu bat ezarri zuena 2011ko, 2012ko eta 2013ko aurrekontu-ekitaldietarako; konpromiso hori, 2011. urterako, erkidegoko BPGren % 1,3koa da, gehieze ere.

Esan den moduan, modu generikoan aipatzen dute bai Espainiako Konstituzioak, bai Nafarroako Foru Administrazioari buruzko Foru Legeak, Estatua eta Foru Komunitatea behartuta daudela, tributuen bidezko beren diru-sarreretan parte emanez, udal zerbitzuak mantentzen laguntzera; hau da, legeok ez dute zenbatekorik eta ehunekorik ezartzen, eta, beraz, bistakoa da ekarpen hori diru-sarreraren bilakaerari dagoela lotua, eta horien beherakadak eragina izan behar duela, nahitaez, ekarpenean.

Orobat, Konstituzioaren 135. artikuluan aurreikusitakoa hartu behar da kontuan, 2011ko irailaren 27an onetsitako aldaketan ezarri zen testua hain zuzen; izan ere, 1. idatz-zatian adierazpen orokor bat egiten du dioenean "administrazio publiko guztiek beren jarduketak aurrekontuaren egonkortasunaren printzipioari egokituko dituztela" eta, gero, zehatzago definitzen ditu irizpideak hurrengo

idatz-zatietan, aurrekontuaren egonkortasun hori lortzearen.

Gutxitu egin direnez finantzaz bestelako diru-sarrerak, aipatu defizit-konpromisoarekin batera aipatu direnak, beharrezkoa gertatu da gastua doitzeko politika bat, eta horren barrenean kokatzen da toki ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funttsaren zenbatekoa aldatzen duena, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

Foru lege honetan egindako aldaketak eragina du bai transferentzia arruntetan bai kapitalarenetan.

Transferentzia arruntei dagokienez, % 2,61eko murrizketa ezarri da 2011ko ekitaldiko funtsean, eta 2012rako zenbatekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ekitaldi horretarako ezartzen duenaren menpe gelditu da.

Kapital transferentzietan dagokienez, zer ekitalditan aurreikusten den eginen direla kontzeptu horrengatik ordainketak, ekitaldi horiei egotziko zaizkie kapital transferentziak, eta exekutatu gabeko kredituak diruzaintzako gerakin atxikitzen joko dira. Orobat, Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean finkatuko da Toki Inbertsioen Planari lotutako kontusailen zenbatekoa.

1. artikulua. Transferentzia Arrunten Funttsaren murrizketa 2011ko ekitaldirako.

1. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsak 2011ko ekitaldian izanen duen zenbatekoa, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legeak arautua, % 2,61 murriztuko da kontzeptu hauetan: Transferentzia Arrunten Funtts Orokorra, Iruñeko Hiriburutzaren Gutuna eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzak.

2. 2011ko ekitaldiko laugarren ordainketa-aldian jaso gabe dauden kopuruak eginen da murrizketa, kontzeptu hauetan: Transferentzia Arrunten Funtts Orokorra, Iruñeko Hiriburutzaren Gutuna eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzak. Horretarako, lehen aipatu ehuneko aplikatuko zaio udal eta kontzeju bakoitzak urtean jaso beharreko guztirako zenbatekoari.

2. artikulua. Transferentzia Arrunten Funttsaren zenbatekoa 2012ko ekitaldirako.

1. Toki ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsetik zer diru kopuru izanen duten Transferentzia Arrunten Funtts Orokorra, Iruñeko Hiriburutzaren Gutunak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzek eta zinegotzietan ordaintzeko Nafarroako udaletarako laguntzek, berariaz finkatuko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2012ko ekitaldiko Foru Legean.

2. Transferentzia Arrunten Funts Orokorretik Iruñeko Udalari esleitzen zaion zenbatekoa ateratzeko, funts horren aldaketaren ehunekoak aplikatuko zaio 2011ko ekitaldirako hasieran esleitutako zenbatekoari.

3. Toki entitate bakoitzak Transferentzia Arrunten Funts Orokorretik beste urte batzuetan jaso duenaren berme-klausula aplikatzeko, kontuan hartuko dena da udal eta kontzeju bakoitzak, transferentzia arruntetan, zer kopuru jaso dituen 2011n.

4. Karguan aritzegatik udalek egindako ordainketak berdintzeko helburuz udal bakoitzari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, kontuan hartuko da kontzeptu hori finantzatzen duen kontusailak izan duen aldaketaren ehunekoak, 2011ko zenbatekoa oinarri hartuta, eta ehuneko hori da zinegotzi-kopuruaren tarte bakoitzari aplikatuko zaiona.

5. Zinegotzien kopurua 2011n aldatu eta haien gastuak konpentsatzeko dagoen diruan defizitik gertatuz gero, eta banaketa egin aurretik, doitu egingen dira jaso beharreko gehieneko kopuruak, 2012ko aurrekontuan helburu horretarako onetsitako hasierako kredituaren arabera hain zuzen.

3. artikulua. Kapital Transferentzien Funtseko konpromisoak nola egotzi.

1. 2011ko ekitaldian hartutako konpromiso ekonomikoak, baldin eta foru lege honek indarra duela hartuak badira, bai eta hurrengo ekitaldietan hartutakoak ere, dagozkien ekitaldi ekonomikoei egotziko zaizkie, hau da, kontuan hartuta zein den Toki Inbertsioen Plana erregulatzen duen araudia aplikatuz ateratzen den ordainketen aurreikuspen erreala.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa betez, aurrekontu-ekitaldi bati baino gehiagori egozten bazaizkio konpromiso ekonomikoak, gastu horiek, ondorio guztietarako, urte anitzeko gastu gisa hartuko dira.

4. artikulua. 2011ko ekitaldiko Kapital Transferentzien Funtsa ez exekutatzea.

2011ko ekitaldian defizita murrizteko neurriak aplikatzearen ondorioz exekutatu gabe gelditu diren kredituak, Toki Inbertsioen Planari lotutako kontusailetakoko kapital transferentziei dagozkienak, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko dira.

5. artikulua. Kapital Transferentzien zenbatekoa, 2012ko ekitaldirako.

1. Nafarroako 2012ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean finkatuko da Toki Inbertsioen Planari lotutako kontusailak zer zenbateko izanen duten 2012. urtean.

2. Toki Inbertsioen Planean eta horren hedaduran, hau da, Toki Inbertsioen Plan Berezia sartutako obra guztiak, baita presa nabarmeneko prozeduraren babesekoak ere, baldintzak betetzen badituzte eta Toki Inbertsioen Plana erregulatzen duen araudian ezarritako prozedurak osatzen, batera finantzatuko dira 2012ko aurrekontuaren kargura eta dagozkion ekitaldiari aplikatzen ahal zaion diruzaintzako gerakin atxikiaren kargura.

Xedapen gehigarri bakarra. Baimenak.

Baimena ematen zaio Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariari behar diren aurrekontuko jarduketara eta doikuntza guztiak egiteko, foru lege honetan aurreikusitakoa bete dadin.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, zeina urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren bidez aldatu baitzen, Nafarroako

Parlamentuak edo Gorteez izan ditzaketen kidekopuruaren esparru orokorra ezartzen du.

Hala, legeko bigarren kapituluaren 15. artikuluko bigarren idatz-zatian– ondokoa xedatzen du: Parlamentuko kideen kopurua ez da berrogei baino gutxiago ez eta hirurogei baino gehiago izanen.

Lege-xedapen horrek orobat ezartzen du foru lege batek finkatuko duela parlamentarien kopuru zehatza eta haien hautapena arautuko, ordezkari-tza proportzionalaren irizpideei jaramon eginez, baita haien hautaezintasun eta bateraezintasun kasuak ere, hori guztia hauteskundeetarako legeria orokorrari jarraikiz.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak, berriz, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetako deialdiaren eta hauteskundearen beren esparru juridikoa ezartzen ditu. 16/1986 Foru Legeak ziurtatu nahi du Parlamentuak duen ordezkari-izaera eta Nafarroako herriak libreki adierazitako borondateari egokitzen zaiola, Foru Komunitateko herritarren afera publikoetan parte hartzeko eskubidea funtsezkoa baita.

16/1986 Foru Legeko I. tituluan –xedapen orokorrak– Legebiltzarra osatuko duten kideen kopuru zehatza ezartzen da. Halatan, 1. artikulua xedatzen du 50 parlamentarik osatuko dutela Nafarroako Parlamentua, eta legean ezarritakoaren arabera hautatuko direla.

Zortzigarren legegintzaldia hasi eta 16/1986 Foru Legea onetsi zenetik 25 urte igaro direlarik, komeni da, gaur egungo inguruabarrak kontuan hartuta, lehenengo artikulua edukia egokitasuna berrikustea.

Berrikusketan hau krisi ekonomikoaren testuinguruan gertatzen da: diru-sarrerak nabarmen jaitsi dira, eta, horrenbestez, baita administrazio publikoaren aurrekontuak ere. Beharrezkoa da, beraz,

funts publikoen kudeaketa lehenestea eta herritarrek zergen bidez egindako ekarpena gardentasun eta zorroztasun handienarekin kudeatzea. Ezin dugu ahaztu, ezta ere, gizartean gero eta sentsibilizazio handiagoa dagoela jardun politikoari dagokionez, eta gero eta eskaera handiagoa dagoela sistema demokratikoaren, parte-hartzearen eta herri-ordezkaritzaren zenbait elementu berrikusteko.

Ekimen hau, arrazoitua eta arrazoizkoa izateaz gain, bizi dugun testuinguru politiko eta ekonomikoarekiko koherentea da. Proposatzen den parlamentari-kopurua 43koa izanen da; alegia, orain baino 7 parlamentari gutxiago. Jaitsiera doitua da, % 14koa, Nafarroan dagoen biztanle-mailaren arabera. Une honetan, erkidego bakoitzeko biztanle-kopurua aintzat hartuz gero, Espainiako erregio guztien artean Nafarroa da parlamentari gehien dituenetako bat.

Ekimen aitzindari hau onetsita, Nafarroako Parlamentua izanen da Espainian bere parlamentari-kopurua jaisten duen lehendabiziko legebiltzarra. Jaitsierak aurrezteko ekarriko du Parlamentuaren urteko aurrekontuetan eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuarenetan. Hartara, erantzukizun, umiltasun eta koherentzia mezu bat ere ematen zaie herritarrei, baita birsorkuntza politikokoa ere.

Proposatutako jaitsierak, bestalde, ez du ez gutxitzen ez eragozten ere Nafarroako Parlamentuak bere ordezkaritza-, politika- eta legegintza-eginkizunak betetzea; aitzitik, areagotu egingen da Foruaren Hobekuntzak Foru Legebiltzarri esleitzen dizkion eginkizunen eraginkortasuna.

Aukeratutako foru parlamentarien kopuruak –43– balio politiko gehigarri bat ere badu; izan ere, eragotzi egiten du bozketetan berdinketa gertatu ahal izatea. Gaur egungo kopuruak –50– aukera ematen du bozketetan 25 botoko berdinketak gerta daitezen, eta horrek baditu ondorio politikoak.

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko I. tituluko 1. artikulua aldatu da. Hona testu berria:

“1. artikulua. Nafarroako Parlamentua 43 foru parlamentarik osatuko dute, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz hautatuko direnak.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Sunsundegui enpresaren salmentari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak iragan urriaren 21ean iragarri zuen Altsasuko Sunsundegui enpresa erosiko duela aldi baterako. Enpresak 275 langileko plantilla dauka eta autobusen eta trenen karrozeria jartzen jardun ohi du. Sodena enpresa publikoak erosketa-aukera bat zuen, eta aukera hori bali-

atuz erosi zuen Gobernuak enpresa. Nafarroako Gobernuak negoziazio prozesu bat abiarazi du inbertsiogile pribatuekin, enpresa saltzeko xedez.

Sunsundegui, egun, herriko enplegu- nahiz produkzio-zentro nagusietako bat da, eta lana ematen die zenbait enpresa osagarriri ere. Enpresa hori mantentzea premiazkoa da Altsasurentzat eta Sakana osoarentzat, krisi ekonomikoak ondorio larriak eragin baititu eskualdeko lan- eta ekonomia-sarean.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sunsundegui enpresaren salmenta-prozesua burutu dezan, helburu nagusi gisa harturik ahal den lanpostu-kopururik handiena mantentzea lehenesten duen enpresa-proiektu bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio enpresa-proiektuak etorkizunerako industria-plan berri bat jaso dezan, bideragarritasun bermea emanen duena eta plantaren produkzio-jarduera sustatuko duena.

3. Nafarroako Parlamentuak negoziatzera premiatzen du Nafarroako Gobernua, industria-plan horrek Sunsundeguiaren plantan egun dagoen B+Gko zentroa mantentzea eta bultzatzea, enpresaren lehiakortasuna hobetzeko funtsezko osagaie-tako bat den aldetik.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan enpresa txiki eta ertainei BEZa ordaintzeari buruzko araudia.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan enpresa txiki eta ertainei BEZa ordaintzeari buruzko araudia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, autonomoek eta ETE-enpresa txiki eta ertainek ordaindutako BEZari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Egungo krisi ekonomikoaren ondorioak nabarmenak izan dira Espainiako enpresa-ehunean, eta eragin berezia eduki du produkzio-jarduerarentzat eta enplegu-sorrerarentzat funtsezkoak diren elementuetan; esaterako, autonomoengan eta ETE-etan.

Espainiako enpresa-ehunaren egungo errealtateak garbi erakusten du enpresen % 90 baino gehiago ETEak eta mikroenpresak direla; horrenbestez, oso garrantzitsua da kolektibo horiei laguntzeko neurriak eta politikak aplikatzea, bereziki zaugarriak baitira krisiaren ondorioen aurrean.

Nafarroa ez da salbuespena: hori da autonomoen kopuruaren bilakaerari buruzko datuek erakusten dutena. Nafarroan, 2011ko lehen seihilekokoan, Gizarte Segurantzara afiliatutako langile autonomoen kopurua 46.816koa izatetik 46.542koa izatera igaro zen; alegia, 274 gutxiago. Hala jasotzen du Langile Autonomoen Elkartearen Federazio Nazionalak egindako txostenak.

Autonomoen kopuruaren beheranzko joera hori ez da eten gure erregioan. Lan Ministerioak orain dela gutxi eman zituen ezagutzera urriko afiliazio-datuak, zeinen arabera autonomoak 46.328 baitziren; hau da, ekainean baino 214 gutxiago.

Hona bai autonomoek bai ETE-ek aurre egin beharreko zenbait egoera erreal: fakturak kobratzeko atzerapenak eta are kobratzeko ezintasuna, banku-sisteman finantzaketa berria lortzeko arazoak eta tributu arloko betebeharrak.

Autonomoentzat eta ETE-entzat asko zailtzen da jarduerari eustea, baldin eta kontuan hartzen badugu arazo horiek, sarri askotan, ez zaizkiela bakanka gertatzen ekintzaileei, baizik eta batera. Gisa horretako egoerak metatzeak berekin ekarri du, behin baino gehiagotan ekarri ere, negoziokoak ixtea eta lanpostu ugari galtzea.

Profesionalen elkarteek eta sektorekoek berek salatu dute administrazio publikoak ere atzeratzen direla fakturak ordaintzerakoan. Merkataritza ganberen datuen arabera, 2011ko lehen hiruhilekokoan zehar, administrazio publikoak hornitzen dituzten ETE-en % 71,4k arazo handiak eduki zituzten kasuan kasuko fakturak kobratzeko.

Horri fakturak kobratzeko epea gehitu behar zaio. Merkataritza ganberen txosten horrek orobat dio administrazio publikoak 5 eta 6 hilabete bitarte atzeratzen direla fakturak ordaintzean. Atzerapen horiek desoreka ekonomikoak eragiten dituzte ETE-etan eta autonomoengan, eta horrek areagotu egiten du berankortasun arriskua. Edozein kasutan, profesionalak BEZa ezinbestez ordaindu behar dute faktura egin ostean, eta zerga ordaintzeko ezarrita dagoen epe ofizialaren barruan egin behar dute ordainketa, faktura kobratuta baldin badute zein ez.

Arazo horiek areagotu egiten dira finantzaketa-arazoak direla medio. Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioak nabarmendu duenez, berriz, 2011n finantza entitate batera kreditu eske edo emandako kreditu bat luzatzera eskatzera jo zuten ETE-en % 87,3k kobratzeko atzerapenengatik jo zuen finantza entitateetara.

Hortaz, ETE-en eta autonomoen likidezia hobetzen laguntzeko neurriak hartu beharra dago. Hartu beharreko neurri bat da, beraz, BEZaren ordainketa atzeratzea emandako zerbitzua egiaz kobratu arte.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du araudia alda dezan, halako moduan non ETE-etako enpresaburuek nahiz profesionalek eta autonomoek kobratzen dutenean

egin ahalko baitute likidazio-epe bakoitzari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketa, kasuko ziurtagiriak aurkeztuta betiere.

Iruñean, 2011ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Trafiko-istripuetako Biktimak gogoan izateko Nazioarteko Eguna ospatzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Trafiko-istripuetako Biktimak gogoan izateko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere atxikimendua eta konpromisoa berresten ditu, bere eskumenen esparruan, errepide-istripuak prebenitzen, istripuak behin gertatuta laguntza ematen eta gidarien nahiz oinezkoen jardunbide onak bultzatzen jarduten

duen erakunde eta antolakunde guztien lanarekiko.

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egingen du trafiko-istripuak pairatzen dituzten pertsonen kopurua murriztea bilatzen duten ekimenak eta ekintzak aurrera eramatea, bai eta biktimei nahiz biktimen senitartekoei laguntzea bilatzen dutenak ere.”

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ubarmin klinikako baliabideak gutxiegi erabiltzeari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Ubarmin klinikako baliabideak gutxiegi erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok ondoko

galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bideko Ama Birjina Ospitaleko, Ubarmin Klinikako eta Nafarroako Ospitaleko profesionalek nahiz haiek artatzen dituzten herritarrek zalantza eta kezka ikusten dute Ubarmin gutxiegi erabiltzen dela-eta abenduan ebakuntza-gelak ixtea eta langileak zentroen artean mugitzea, Osasun Departamentuaren ordezkariak iragarri bezala. Hori ikusita, ondokoa jakin nahi dugu:

Noiz arte mantenduko da Ubarmin klinikako baliabideen azpierzailera?

Zer aurreikuspen dago 2011ko abenduan ebakuntza-gelak itxteari dagokionez?

Zer irizpide baliatu dira zentro bati atxikitako langileak berea ez den beste batera mugitzeari dagokionez?

Iruñean, 2011ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Lizarragako tunelaren ondoko kareharrien ustiapenari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Lizarragako tunelaren ondoko kareharrien ustiapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapen, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urbasako eta Andiaiko Natur Parkearen lurraldeetan jardunean jarraitzen du kareharri harrobi batek. Jarduera pribatu horrek parkeko naturan duen eragin negatiboa oso handia da, nahiz eta natur parke deklaratzeko haren natura babestu nahi zen.

Natur Baliabideak Antolatzeke Plana, zeina 2002ko otsailaren 4ko 15. NAO n argitaratu eta Nafarroako Parlamentuak onetsi baitzuen, natur parke deklaratzeko ezinbesteko lege-tresna da, eta artikulua bat eskaintzen dio auziari, hitzez hitz ondokoa dioena:

4.7.2 Ateratze lanak. Lizarragako tunelaren ondoko kareharri harrobirako (Manufacturas de Productos Minerales "El Cisne" S.A.k sustatua) iragaitzako aldi bat ezartzen da behin betiko ixteko. Epe hori lan planaren arabera eta behar den lehengoratzeko planaren arabera definituko da, jarduera hori ixtearen ondorio negatiboak ahal den guztian gutxituz. Epe hori, betiere, ez da inoiz

izango oraingo administrazio kontzesioa baino luzeagoa. Harrobiaren aprobetxamendu erritmoa ez da izanen azken urteetako baino nabarmen handiagoa.

Halere, 2000. urteko datuekin alderatuta (guztira ez zen 50.000 metro koadrora iristen), 2010ean ikusten da 9.675 metro koadroko handitze handi bat egin dela Lizarragako tunelaren ondoko harrobiko ateratze-azaleran. (Sitnaren web-orritik hartutako datuak: <http://sitna.navarra.es/navegar>)

Galderak:

1. Zein da kareharri harrobi hori ixteko iragaitzako aldirako ezarritako epearen iraupena?

2. Ba al dago, edo eskatu al zaio enpresari, "eginkizunen planik"?

3. Ba al dago Leheneratze Planik?

4. Leheneratze Plana baldin badago, zer osagai deklaratzeko du leheneratuko direla? Harrobi horren kasuan, osagai garrantzitsuena ez da landaredia, baizik eta espazioa bera, ateratako bolu-mentu, parajearen izaera arrokatuaren aldaketa. Nola leheneratuko da?

5. Administrazio-kontzesioa noiz arte dago indarrean?

Iruñean, 2011ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Ondasun guztien inbentarioaren gabeziak zuzentzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Ondasun guztien inbentarioaren gabeziak zuzentzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

2010eko kontu orokorreari buruzko txostenean, Comptos Ganberak berriro dio: "Ibilgetuaren saldoak ez ditu bere barrenean hartzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzapeko ondasun guztiak –besteak beste, erabilera orokorrerako inbertsioak eta ibilgetu ez-materialeko inbertsioak–, ez du jasotzen balioa galtzen duten elementuen

amortizazioa, eta ez dago oinarrituta ondasunen eta eskubideen inbentarioan. Ez dagoela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jabetzapeko ondasun guztien inbentario baloratu eta osorik.”

Horra galdera: Zergatik ez dira neurriak hartu gabezia horiek zuzentzeko?

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriaren negozio-bolumenaren gaineko aurreikuspenei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriaren negozio-bolumenaren gaineko aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapen, Berrikuntza, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria” sozietatearen 2010eko ekitaldiari buruzko urteko kontuen arabera, ia 6 milioi euroko galerak erregistratu ziren. Orobat adierazten da epe luzeko zorpetzea ia 53 milioi eurokoa dela.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen egiten ditu, Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria rennegozio-bolumenari eta emaitzei dagokienez, 2011-2014 eperako? Gobernuaren ustez, sozietate horrek bere zorrari aurre egiteko ahalmenik ba al du?

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, “Euskarari buruzko programak gizarte hedabideetan” izeneko kontusaila desagertzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, “Euskarari buruzko programak gizarte hedabideetan” izeneko kontusaila desagertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kontseilari Iribas jaunak ahoz erantzun dezan:

Ikusita Gobernuak 2012rako aurkeztu duen aurrekontuen proiektua, zeinetatik desagertzen baita euskarazko gizarte-hedabideei buruzko programen kontusaila:

Gobernuak nola beteko du Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeko 27. artikulua?

Nafarroako Gobernuak zer plan ditu komunikabideak diruz eta materialez laguntzeko, euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten?

Iruñean, 2011ko azaroan

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Ilundaingo adingabeen zentroa irekitzeko plangintzari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Ilundaingo adingabeen zentroa irekitzeko plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kontseilari Elena Torres Miranda andreak ahoz erantzun dezan Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordean:

Departamentuak zer plangintza dauka 2011ko otsailaren 2an inauguratutako Ilundaingo adingabeen zentroa irekitzeari begira?

Iruñean, 2011ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, euskaltegi publikoetako ikasle-matrikulazioari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, euskaltegi publikoetako ikasle-matrikulazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Hezkuntza Kontseilari Jose Iribas jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Euskaltegietan izena emateko epea amaitu da, eta jada 2012-2013 ikasturterako ikasle kopuruak finkatuak dira.

Orotara zenbat ikasle matrikulatu den euskaltegietan? Zenbat izan dira euskaltegi publikoetan eta zenbat herri ekimeneko euskaltegietan?

Jakin nahi dut zein den Gobernuaren balorazioa, aurreko urteekin alderatuz, lortutako kopuruaren inguruan.

Emaitzak hobetzeko neurriren bat aurreikusten al du Gobernuak?

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Josefina Arregui zentroko ohe bakoitzaren kostuari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Josefina Arregui zentroko ohe bakoitzaren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcanok, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak itunduta dituen beste zentro batzuetan baino txikiagoa da eta izanen da ohe baten kostua Josefina Arregui zentroan. Zergatik? Kontseilariaren eta bere departamentuaren ustez, zentro horretan lan egiten duten pertsonen kalitatea eta are profesionaltasuna beste zentro batzuetakoa baino txikiagoa al da?

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakiteko noiz deituko den Transferentzien Batzarraren bilkura.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko noiz deituko den Transferentzien Batzarraren bilkura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andreak orain dela aste gutxi iragarri zuen Transferentzien Batzarraren bilkurarako dei egiteko asmoa duela.

Horri buruz, ondokoa jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak noiz eta zer helbururekin egingen du Transferentzien Batzarraren bilkurarako deia?

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Arbizuko ikastolan “Euskal Herriaren” eta “Palestinaren” arteko adiskidetze-egun bat ospatzeari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Arbizuko ikastolan “Euskal Herriaren” eta “Palestinaren” arteko adiskidetze-egun bat ospatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boado jaunak idatziz erantzun dezan.

Duela zenbait hilabete, Pirritx eta Porrotx izeneko pailazoak –Batasuna lege kanpokoaren zinegotzi izandakoak Lasarten eta ETako presoan aldeko bideoetako protagonista izandakoak– bistan izan ziren Arbizuko Ikastolan, euskal herriaren eta palestinar herriaren arteko adiskidetze-jardunaldi batean, Euskal Herriaren eta Palestinaren arteko bategite-festa batean. “Pailazo” horien bistan bideoa hedabideetan argitaratu da, eta hartan ondoko irudiak ikus daitezke:

– Pailazoak ikasgeletan sartu ziren, eta haurrek –txiki-txikiak– arabiarren jantzi tipikoekin eta aurrealdean Palestinako bandera zutela egin zieten harrera. Irakasleak eta gurasoak ere halaxe jantzi ziren.

– Gela Palestinako eta Euskadiko banderez apaindu zuten.

– Gelan orobat zegoen Palestinako murruren gisako bat, playmobilekin egina. Israelgo militarrek armaturik ageri ziren.

– Pailazoen “Gora Palestina” eta “Gora Euskal Herria” oihukatu zuten gelaren erdian.

– Jarraian, pailazoak, gurasoak, haurrak eta irakasleak kalejiran irten ziren bide publikora, Euskadiko eta Palestinako herrien arteko adiskidetzebiribilketan.

– Grabatutako bideoan Palestina free kantua entzun daiteke. Bideoaren amaieran, orain dela bi urte pailazoen Palestinara egindako bidaiaren irudiak ageri dira.

Hori dela-eta, ondokoa galdetzen diot Hezkuntzako kontseilariari:

– Hezkuntzako kontseilariak ba al du pailazoen horiek Arbizuko ikastolara egindako bisitaren berri?

– Hezkuntzako kontseilariak zer balorazio egingen du pailazoen horiek ikastetxe horretara egindako bisitari eta han gertatutakoari buruz?

– Gertakari horiek direla-eta, kontseilariak zer agindu emanen dio Ikuskapen Zerbitzuari?

Iruñean, 2011ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Caparrosoko granja baten ingurumen baimen integratuaren gaineko epaiaren eraginari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Caparrosoko granja baten ingurumen baimen integratuaren gaineko epaiaren eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Landa Garapen, Berrikuntza, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu andrearen kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi ezagutu dugu Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren epai irmoa, zeinaren bidez baliogabetu baita –ez dago errekurtsioa jartzetik– HTN Biogás-ek Caparrosen sustatutako biometanizazio-plantedun esne-behi abeltzari ingurumen-baimen integratua.

• Epaiak zer eragin izanen du enpresan, haren jardueran eta langileengan?

• Nafarroako Gobernuak zer errepide-mapa baliatuko du hemendik aurrera?

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, 1512-2012 mendeurrena ospatzeko programari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, 1512-2012 mendeurrena ospatzeko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

Jakin nahi dut 1512-2012 urteurrenerako Nafarroako Gobernuaren programa ea finkatuta dagoen.

Zer egiteko asmoa du Gobernuak? Zein da programa zehatza?

Programa zehatzik ez badago, noizko dago finkatzeko asmoa?

Programa zehatza egotekotan, zein aurrekontu partidaren gainean dago oinarritua programa hori?

Zenbat diru kostako da egitaraua gauzatzea?

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoaren 8 eta 9. artikulua betetzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoaren 8 eta 9. artikulua betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoko 8. eta 9. artikuluetan aipatzen da osasun arloko profesionalen prestakuntza eta ugalketa nahiz sexu arloko prestakuntza hezkuntza sistematan sartzea.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

Zer egin da Nafarroan atal horietako bakoitza betetzeko? Egindako ekintza guztiei buruzko xehetasunak jaso nahi ditut, bai eta horietan erabiltako aurrekontuari buruzkoak ere.

Iruñean, 2011ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

